

# ...eta **kitto!**

731 zkia. 2010-IX-3

ASTEKARIA



## Oporretatik bueltako **JAIAK ARRATEN**

**aek**

[www.aek.org](http://www.aek.org)

# **matrikula zabalik**




Sostoa 1, 1. solairua    Telefonoa: 943 201 379




[eibar@aek.org](mailto:eibar@aek.org)

# KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4  
279 Postakutxa  
20600 EIBAR  
943 121 262  
943 127 334



*Edozein  
ospakizunetarako  
aukera*



[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)

**EZKONTZAK**

**BATAIOAK**

**JAUNARTZEAK**

ARRATEKO SANTUTE-

GIAREN ondoan

aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,  
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,  
karta, enpresa bazkariak...

RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA.JATETXEA





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea

20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARAGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.050 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**GIZAJO.-** Errukarria. Gizonezkoekin bakarrik erabiltzen da. Umeekin eta andreekin, koittadua. "Gizajua ez zan gauza zutiñik egoteko". "Ume koittaua ixa itto zan".

**GIZATO.-** Gizontze bidean dagoen mutil gaztea, mutikotea. "Gizato galanta egin jatzu semia".

## ESKUTITZAK

### — OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

### ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astean, Arrateak direla-eta, ez da alerik izango. Hurrengoa, beraz, hurrengo barixakuan -hau da, irailaren 17an- kaleratuko dugu. Barkatu eragozpenak eta ondo pasa jaietan.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Euskaraz eta kitto" moduko esloganak ez ditut hain gogoko. Ametsak beharrezkoak dira, baina errealtetetik hara egin daitekeen zubiak egingarria izan behar du. Askotan gertatu da amets potoloetatik pasatzea amets oren dimisiora, penduluekin bezala"

(Jon Sarasua, MU-ko irakaslea)

"Ordubeteko zorientasuna nahi baduzu, mozkortu zaitetz; hilabete batzuetarako zorientasunerako, bikotea aurkitu; orain, bizitza guztirako zorientasuna bada bilatzen duzuna, ortua landatu egizu. Lurrera bueltatzea izango litzateke onena gure ekonomiarentzat"

(Bigas Luna, zine-zuzendaria)

"Zer egingo luke Eusko Jaurlaritzak sanskrito-euskarazko hiztegiarekin? Barrezka baztertuko lukete, bai abertzaleek, bai ez-abertzaleek. Eusko Legebiltzarrean ustezko abertzale guztiak euskaraz bakarrik egitean, orduantxe esango nuke euskara serio hartzen dutela"

(Mikel Morris, hizkuntzalari)

"Batzuk besteekin elkar joz eta kaotikoki gabilta. Hemendik ehun urtera ezagutu gaituen inor ez da gertuko hemen eta arazo, krisi ekonomiko, adulterio eta enparavek ez dute garrantzirik izango. Hainbeste amorru eta zarataren ondoren, ezark ez du zentzurik"


(Woody Allen, zine-zuzendaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutzak diruz lagundutako aldizkaria

**U**da aurreko aurreikuspenen arabera, abuztua nahiko lasaia izango zela pentsa zitekeen. Hala ere, martxan ipiñi diren obrak, tainuari begira nahiko txikiak izanda ere, inguruan eragin handia izaten duten horietakoak izatea egokitu da eta horrek buruko min bat baino gehiago eragin die inguruan bizi direnei eta, trafikoan izan diren aldatetak direla-eta, gidariek ere traba ugari aurkitu dituzte bidean. Oraindik ere zulo handiak daude herriko erdialdeko kaleetan, baina poliki-poliki trafikoa normaltasunera bueltatzen hasi da.

Erdialdeko kaleetako batzuk moztuta egoteko arrazoi nagusiak bi izan dira: batetik, San Agustin kalea eta Untzaga (Guridi taberna ingurua) orain dela egun batzuk arte itxita egon dira, oinezkoendako zein ibilgailuentzat egokia den pabes berria behin-betiko finkatuta geratu bitartean. Erdialde guztiari itxura homoginoa emateko helburuari jarraitzen dion Udalaren egitasmoaren baitan garatutako beharrak izan dira.

Bestalde, Gipuzkoako Urak uraren kanalizazioarako hodi berriak ipintzeko aprobeztatu du abuztua eta oraindik ere horretan dihardute: beharren eraginez, besteak beste Isasi, Barre-



# Zulo ugari lasaia izan behar zuen udan



Bidebarrietan, herriko beste kale askotan bezala, uraren kanalizazioarako hodi berriak ipintzen dihardute.

nengua, San Andres pasealekua, Untzaga, Txoko ingurua, Juan Gisasola, Bidebarrieta, Julian Etxebarria, San Juan eta Calbeton zulatu dituzte eta, tarteke, horietako batzuk trafikoa-erentzat itxita egon dira.

Eta zaratarengatik traba mordoa eragiten diharduten beharrak bariantearen 3. fasekoak dira. Mendia zulatzeke egin dituzten leherketek, gainera, sus-to bat baino gehiago eman dizkiete inguruko bizilagunei. Uz-taila erdialdera auzokideak la-saitzeko bilera egin zuten, bai-na handik ordu batzuetara, le-herketak programatzean izan-dako hutsegitearen ondorioz, gaueko 23.30etan karga batek eztanda egin zuen eta lehendik ere oso lasai ez zeuden herritar-rrak asaldatu egin zituen. Ho-rien inguruko keja eta bestala-koei erantzun behar izan diete orde-zko-alkate kargua betetzen egon diren Eneko Andueza eta Nerea Alustiza zinegotziek.

## 750 kiloko harriari tiraka Azeitainen

Baina beharretatik aparte, jai-rako tarterik ere izan da. Abuztu hasieran San Salvador jaiak ospatu ziren eta Azitaingo Andra Mari jaiak, berriz, ikusmin handia sortu zuten inguruan, egita-rauan sartutako berritasun bati esker: 750 kiloko harriaren ingu-



Lehen baino berdegune handiagoa duen igerilekuak beste batzuetan baino jende gehiago erakartzen dihardu.




Trenbidea estali eta geltoki berria jasotzeko beharretan aurrerapausoak nabari dira.



Ego-gain kalea itxita egon da atzora arte. Ondorioz, trafikoa aldaketak izan dira azken aldean.



Untzaga ingurua eta San Agustin itxita egon dira, babes berria finkatuta geratu arte.



San Andres Eskolako fatxadak paretik pasatzen diren begiradak erakartzen ditu.

ruko proba jokatu zuten 8 gizonzkoek osatutako taldeak eta idi batek. 20 minutuan plaza gehien nork beteko zuen, hor zegoen koska, eta azkenean idiak eskuratu zuen garaipena, 42 plaza eginda. Morroskoak 40 plazarekin konformatu behar izan ziren.

#### Bisita mordoia Museoa

Herritik kanpora joandakoak asko izanda ere, gurera etorri denik ere izan da eta, Armagintzaren Museoa, maila handi batean industriari eskainitako atal berriari esker, aurrekoetan baino askoz ere bisita gehiago

jaso dituela azaldu dute bertako arduradunek.

#### Igerileku berriaren arrakasta

Eta orain arte baino toki gehiagorekin estrenatu den Ipuruako igerilekua ere martxa onean ibili dela adierazi dute: uztailaren 20ra arteko sarrera kopuruari begiratuta, 20.574 erabiltzaile izan zituen, batez beste 660 lagun eguneko. Irailaren 20ra arte zabalik egotea aurreikusita dagoela kontuan hartuta, iazko 40.500 erabiltzaileak aise gainditzea espero dute Kirok Patronatoko arduradunek.

## EUGENIO UZKUDUN GARITAGOITIAren

1. URTEURRENA (2009-IX-6)



**BERE ALDEKO MEZA ospatuko da irailaren 5ean (domekan), 11.00etan hasita, Amañako Salvatore elizan.**



# a u t u a n

## BAZKARI BI MARTXAN

Urriaren 23an bazkaria egingo dute 1955ean jaiotakoak. Joan nahi dutenek 80 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korronte honetan: 21010035160127373025. Bestalde, 1960an jaiotakoak urriaren 16rako antolatu dute bazkaria, Arrate hotelean. Bazkarira joan ahal izateko 80 euro sartu behar dira Kutxako honako kontuan: 21010035110012624078.

## ARRATE IZENEKOAK

Aurten 15. urtez jarraian elkartuko dira Arrate izenekoak, eguna jai giro ederrean igarotzeko asmoz. Irailaren 19rako deialdia egin dute eta, ohikoa den moduan, batzuk oinez igoko dira Arratera, Ama Birjinaren pausoen bidetik eta, besteekin goian elkartuta, meza entzun ondoren joko, bazkari, dantzaldi eta bestelakoendako tartea izango da.

## PEGORAREN ORDUTEGIA

Udaletxeko beheko solairuan dagoen Pegora Herritaren Zerbitzurako bulegoa goizez bakarrik zabalduko dute irailaren 15era arte (09.00etatik 13.30etara). Hilaren 16tik 30era bitartean, asteleheneetik eguenera goizez (09.00etatik 13.30etara) eta arratsaldez (17.00etatik 19.30etara) egongo da zabalik eta barixakuetan bakarrik goizez egingo dute beharra.



## Nagusiak ere eskolara bueltan

### ARRATEKO JAIK IGAROTA, HERRIKO IKASTETXEETAKO GELAK BERRIZ ERE IKASLEZ BETETZEN JOANGO DIRA.

Klaseetara bueltatzen lehenengoak hezkuntza arautuan diharduten haurrak izango diren arren, piskat aurrerago ekingo diote klaseari helduek. Batetik, Debabarrenako Esperientzia Eskolak 50 urtetik gorakoei ikasturte berrian parte hartzeko aukera eskainiko die berriz ere. Urrian hasiko dira klaseak eta, ekaina bitartean astean hiritan emango dira (martitzen, eguazten eta eguenean, 09.30etatik 12.30etara). Besteak beste, gizarte-gaitasunen garapena, komunikazio gaitasunen trebezia, osasun fisiko eta mentalaren hobetzea, erlajazio teknikak, informatika, psikologia, filosofia, Debabarreneko kultura eta ohiturak eta beste hainbat gai landuko dituzte ikasleek. Interesa dutenek urriaren 8ra arte izango dute matrikula betetzeko aukera (200 euro, ikasturtean zehar ordaindu beharrekoa). Argibide gehiagorako 943 22 41 46 edo 626 77 36 76 telefono zenbakira deitu daiteke.



Esperientzia Eskolako iazko ikasleak amaieran egindako argazkian. / EKHI BELAR

### Helduen Irakaskuntza Zentrua

Bestalde, Isasi kaleko Helduen Irakaskuntza Zentruan irailaren 15era arte egongo da izena emateko aukera, 16.00etatik 20.00etara. Zentruan irakasten dituztenen artean, aipatzekoak dira alfabetizazioa, atzeritarrentzako ikastaroak (gaztelera ikasteko eta alfa-karneta), Bigarren Hezkuntza Graduatua lortzeko ikastaroak, 25 urtetik gorakoentzako Unibertsitaterako sarrera-prestakuntza, oinarrizko prestakuntza, oinarrizko informatika ikastaroa eta ingeles eta euskera ikastaroak. Informazio gehiagorako 943208856 telefono zenbakira deitu behar da.

## Ikasleentzako diru-laguntzak eskuragarri

### UDALAK EIBARREN ERROLDATUTAKO IKASLEENTZAT DIRU-LAGUNTZAK EMANGO DITU IKASTURTE HONETAN ERE.

Umeak Eskolara kanpainari jarraituta, 60'10 euro jasotzeko eskubidea dute 1995eko irailaren 1a eta 2008ko abenduaren 31a bitartean jaiotako en gurasoek. Horretarako, eskaera-orria behar den bezala bete eta, egindako erosketen frogagiriarekin batera, Portalean horretarako apropos ipini duten postontzian sartu beharko da. Abenduaren 1ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea.



Kopuru berbera eskatzeko aukera izango dute 1985ko urtarrilaren 1a eta 1994ko abenduaren 31a bitartean jaiotakoak, beti ere Eibarren erroldatutakoak badira. Kasu honetan ere Pegoran aurkeztu beharko dituzte eskaerak, abenduaren 1a baino lehen.

## Eibar-Gasteiz, N-1 errepidea baino erabiliagoa

**HISTORIKOKI GIPUZKOAKO ERREPIDE NAGUSIA IZAN DEN N-1ARI KONPETENTZIA EGITEN DIOTEN BESTE BATZUK AGERTU ZAIZKIO**, uda honetan bertan ikusi den moduan. Izan ere, opor sasoiaren gure lurraldea zeharkatzen duten gidarietako askok Donostiako Bigarren Gerrikoa (AP-8) eta Eibar-Gasteiz (AP-1) aukeratu dute, N-1 errepidea baztertuta. Foru Aldundiak tra-

fiko gehien izaten den egunetan jasotako datuen arabera, AP-1 errepidea erabiltzen dutenen kopuruan %18'9ko igoera izan zen Gasteizerako norantzan eta kontrako norantzan, berriz, igoera %75ekoa izan da. Uda honetan 760.000 ibilgailu-tik gora ibili da Eibar-Gasteiz errepidean. Egunez eguneko datuei erreparatuta, uztailaren 31an izan zen trafiko gehien (53.000 ibilgailu).

## Emakumeentzat lau ikastaro antolatu dira

**GIZARTEKINTZA SAILAK LAU IKASTARO ANTOLATU DITU, BEREZIKI EMAKUMEEN INTERES ETA PREMIAK GOGOAN.** Irailetik abendura bitartean emango diren ikastaroak hauek dira: “Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa”, “Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa (maila aurreratua)”, “Emozioei buruzko ikastaroa” eta “Gure arbasoekin lanean”. **Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa** martitzenetan emango da Portalean, ikastaro gelan, irailaren 21etik azaroaren 16ra (12 ordu), 15.30etatik 17.00etara. Saioa Baena, Maite-na Onaindia eta Idurre Zabala obstetria eta ginekologian adituak diren fisioterapeutek emango dute ikastaroa. Izena emateko irailaren 16rako Pegorara jo beharko dute interesatuek.

**Emozioei buruzko ikastaroa** urriaren 6an hasi eta abenduaren 15ean amaituko da eta klaseak eguaztenetan, 17.30etatik 19.30etara emango dituzte Portalean. Eskaera egiteko epea irailaren 13tik 30era (biak barne) bitartekoa izango da.

**“Gure arbasoekin lanean”** izenburuko ikastaro monografikoa da. Antolatzailleen berbetan *“emakumeen historia familiarra ardatz hartu nahi du ikastaroak, beraien ekarpen eta zailtasunen berri eman eta berritzaileak, erronkazaleak eta au-*



*sartak zertan izan ziren ezagutzera emateko”.* Pepa Bojó Ballester psikologo-sexologoak emango duen ikastaroa azaroaren 11n hasi eta abenduaren 16an amaituko da. Klaseak eguenetan, 17.30etatik 19.30etara izango dira eta eskaerak urriaren 4tik azaroaren 5era aurkeztu daitezke.

Eta **zoru pelbikoa indartzeko ikastaroaren maila aurreratua** azaroaren 23tik abenduaren 23ra emango da, eguenetan 15.30etatik 16.30etara. Urriaren 18tik azaroaren 17ra (biak barne) eman daiteke izena.

## Ordutegi berezia Portalean


**PORTALEA KULTUR ETXEA ORDUTEGI BEREZIAN ZABALDUKO DUTE DATOZEN EGUNOTAN:**

irailaren 7ra arte astelehena eta barixakua bitartean 09.00etatik 20.30-etara egongo da zabalik. Arrate egunean, berriz, itxita egongo da eta irailaren 9tik 30era, astegunetan 09.00-etatik 21.30etan zabalduko dute. Iraileko azken asteburuan, zapatuan 10.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 21.00etara egongo da zabalik eta domekan 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 21.00etara. Eta Portalea erai-kinean dagoen Gizartekintzak irailaren 30era arte jarraituko dio uztailaz geroztik indarrean duen udako ordutegiari: 09.00etatik 13.00etara egingo dute beharra.



## Ziklomotoreentzat azterketa teknikoak

**ASTELEHENEAN HASI ETA EGUAZTENA BITARTEAN ZIKLOMOTOREEI AZTERKETA TEKNIKOA EGINGO ZAIE ZEZEN-PLAZAN,** azken urteotako martxari jarraituta. Goizez, 09.00etatik 14.00etara egingo dituzte azterketak, alde zuzenetik Udaltzaingoan txanda hartuta. Azterketa egiteak 24'39 euro balio du eta 15 bat minutuan egiten dute. Azterketa egiteko txanda eskatzeaz gain, ziklomotorearen zirkulazio baimena, ibilgailuaren ezaugarri teknikoak jasotzen dituen txartela eta aseguruak aurkeztu beharko dira. Azterketa teknikoak derrigorrezkoa dela gogorazuzite udaltzainek.



## OTA bueltan Errebalgo aparkalekuan

**EGUAZTENAZ GEROZTIK ERREBALGO PARKING-AK OHIKO MARTXARI HELDU DIO, UDAKO ETENALDIAREKIN AMAITUTA.** Beraz, egunez (09.00etatik 20.00etara) bertan automobila laga nahi duenak derrigorrez tiketa ateratu beharko du horretarako dagoen makinan. Txartela izan ezean, Udaltzaingoak isuna ipintzeko aukera izango du. Aparkatzeagatik ez da ezer ordaindu behar, baina ibilgailua gehienez ordu biko tartean laga daiteke aparkalekuan (gauetz, berriz, ez da horrelako derrigorrik

eta goizera arte ibilgailua aparkatzeko aukera daukate gidariek).

Apirilean zabaldu zuten aparkalekua, Errebalen erabili barik zegoen orubeari behin-behineko erabilera emateko asmoz. Doaneko OTA sistemari jarraituta erabiltzen den aparkalekuak izan duen harrerarekin pozik agertu dira Udaltzainariak eta, eurek emandako datuen arabera, egunean 380 bat automobil aparkatzen dira. Parking-a martxan dagoen denboran (100 bat egun) 38.000 ibilgailutik gora aparkatu dituzte Errebalen.



## Oporretarako etxia alkartrukatuko zenduke?



**HIGINIO VARELA**  
48 urte  
bihargiña

Ez dot txarto ikusten, baiña ez nintzake animauko; nere burua holakuetan parte hartzen ez dot ikusten.




**AINHOA MENDIA**  
35 urte  
erizaiña

Oso ideia ona begittantzen jata, baiña pentsatzen dot neuk ez dotela holako kontuetan parte hartuko, beldur piskat emoten desta.


**XABIER MARTIKORENA**  
28 urte  
kale-hezitzaillia

Ni neu ez nintzake animauko, bestiak beste eskintzeko etxerik ez dakatelako. Eta bestela be ez dot pentsatzen holako zeozertan parte hartuko neukenik.



**KAREN LEON**  
40 urte  
ume-zaintzaillia

Telebistan ikusi dot zelan funtzionatzen daben eta oso aukera ona begittantzen jata dirurik ez dakanak mugitzeko aukeria izan deitan. Etxia laga doten moduan topauko dotela jakinda, animauko nintzake.



**GAUR, irailak 3**  
**INAUGURAZIOA**  
19.00ETATIK 21.00ETARA

943-702447 San Juan, 1

**Hodei**  
taberna

**Gosariak Pintxoak Kazuelitak**  
**Plater konbinatuak**  
**Ogitartekoak Sandwich-ak**

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilburieta 20 - beheko, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

**Tanatorio eta Errausketa laber**  
Egokibonak (Signo poligonoz)  
Partikular, mutua eta aseguru berezi zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak  
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen dituzte  
Nazio eta Nazioarteko traslakadak


**Mugica**  
Ehorzketa  
Ehorzketa laber

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**



**5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak**

**ZEZEN  
BIDE**



**AUTO  
ESKOLA**


**AUTO  
ESCUELA**

**CURSOS INTENSIVOS**

**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

**GIDA-BAIMENAK**

**San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
EIBAR**



**Tel. 943 202 727 Faxe. 943 208 991 Arrate auzoa, z/g -EIBAR-**



**Krabelin**

**HOTELA  
JATETXEA**

**Jai Zoriontsuak!**

**E-maila: [conecta@hotelkrabelin.com](mailto:conecta@hotelkrabelin.com) [www.hotelkrabelin.com](http://www.hotelkrabelin.com)**



*Oporrak eta ofizioa (kasu honetan afizioa ere badela jakinda) batu ditu aurten ere Kezka Dantza Taldeak. Hungarian izan dira gure herriko dantzariak abuztuan eta hango nazioarteko jaialdian talde txalotuenen artean izan dira; Eibarren izena mundutik zehar zabaldu eta gero, Arrateko Amari ere ez diote kalerik egingo hilaren 8an.*



## Kezka Arrateko zitan fin-fin beste behin

Urteroko moduan, “meza nagusian eta prozesioaren ondoren dantzatu eta gero, behin zelaian, emanaldi osoa eskainiko dugu”, diosku Oier Araola-z Kezka Dantza Taldeko ordezkariak. Arrate Eguneke meza nagusia 11.00etan hasiko da eta zelaiko emanaldia 12.30etan. Hurrengo domekan, Kofradia Egunean, bestalde, aurrekua dantzatzeko du Kezkak 11.00etako mezaren ondoren.

### Renoko gonbidatu bereziak

Ohikoa izaten da ere kanpoko zenbait dantzari gonbidatzea eta Arrateko Amaren dantzarien kofradiako ohorezko kide egitea. Aurten urrutirago joan dira eta AEBetako Renoko dantza taldeko zuzendariak izango dira gure artean, Lisa eta Enrike Korkostegi bikotea: “Enrike hemen jaioa da, bizkaitarra, eta Lisa estatubatuarra eta Enrikerekin ezkondua”, dioskue Kezkakoek. Betiko legez, bestalde, ezpata-dantza egingo dute Meza Nagusian eta prozesio amaieran; zelaian, ondoren, Arrateko Amaren ezpata-dantza eskainiko dute “lau bakarlari aurean” dutela eta, jarraian, Arrateko Amaren trokeo-dantzak, makila txikien, makila handien eta brokel dantzak tartean direla. Guztira 40 bat dantzari izango dira ekitaldi horretan.

### Arrateko ezpata-dantza Katalunian

Dantza hori aurkeztu zuen ere Eibarko taldeak uztailearen erdialdean Torredembarrran Ball de Pastorets taldeak antolatutako dantza jaialdian. Gonbidatu bereziak izan ziren eibartarrak eta Vendrell, Tarragona, Vilafranca del Penedés eta Vilanova i la Geltrúko Ball de Pastorets-ekin jardun zuten. Talde hauek artzainen dantzak eskaintzen dituzte, makil handi batzuekin: makilak elkarri emanez, ezpata-dantzetako fi-

gurak osatzen dituzte, hala nola ganbarak, arrosak, etabar. Irteera arrakastatsua izan zen, beste behin.

### 40 laguneko taldea Hungarian

Szeged hiriko Country-Wandering jaialdian hartu zuten parte eibartarrek, hango hiru emanalditan: Cserkeszöln, Szank-en eta Morahalom-en. Arrateko Amaren ezpata-dantzaren erritmora, txaloka jardun zuten hungariarrek zenbait unetan. Zuberoko dantzak, Durangaldeko dantzari-dantza, kaskarots eta jota eta porrua ere dantzatu zuten. Dantzari, musikari eta laguntzaileen artean, 40 lagunek osatu zuten Hungariara joandako Debabarrenako espedizioa eta Budapesteko Museo Etnografikoa bisitatze-ko aukera izan zuten. Abuztuaren 11tik 16ra iraun zuen jaialdiak eta Belgika, Turkia eta Estoniako taldeak ere izan dira bertan.

### Matrikulatzeko aukera irailaren 13an

Urteroko moduan, ikasturte berrirako Kezka Dantza Taldean matrikulatu nahi duten 2004aren aurretik jaiotako neska-mutil guztiek aukera izango dute hilaren 13an, astelehena, Portaleko Dantza Gelan. Ordu-tegia arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara izango da.



Uztailean ere irten zuten Kezkakoak. Kataluniako Torredembarrrako Ball de Pastorets-en hartu zuten parte.

**MAITANE**  
jatetxea  
TIRO eremuan

- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Kazuelitak
- Eguneke menua
- Asteburuko menu bereziak

Arrate balle, 5 **PARKING PRIVATUA**  
Tel. 943 208 859

**KILT**  
ENGLISH CLASSES

Philip Wylie  
Ingeles Irakaslea

**Julian Etxeberria 8, behea**  
Tfnoa: 943 20 81 21

# Bertsoak afaltzeko irrikitan

**G**uretzat oso inportantea izan zenez, orain dela 17 urte inguru Eibarko Sanandresetan egin zen bertsolari gazteen saio bat aipatuko nizuke, bertsolariaren eboluzioaren eta iraultza txikiaren adierazgarri izan zelako. Arantzazu Loidi, Jon Maia, Jon Sarasua, Jesus Mari Irazu, Unai Iturriaga eta ni geunden, denak gaztetxoak eta oraindik ez oso ezagunak. Antolatzaileek nahikoa beldur bazuten, hirurehun aulki jarri zituztela, baina ea zenbat lagun biltzen ziren. Bada iritsi ginen frontoira eta gainezka zegoen, jendea pasiloetan zutik, denak gazteak... Kristoren feeling-a sortu zen, giro beroa. Saio gogoangarria gertatu zen. Gaur egun nahiko arrunta da honelakoak ikustea, baina orduan inflexio puntu bat izan zen Eibarko hura". Horrela erantzuten zion Maialen Lujanbio txapeldunak, orain dela hilabete bat kaleratutako elkarrizketan, "zure ibilbidean zehar, bereziki gustura geratu zaren saio bat aipatuko al zeniguke, betetasun sentsazioa izan duzuna?" egindako galderari.

1993ko Sanandresak ditu gogoan Lujanbiok ekitaldi hura gogoratzean. "Beldur zuten antolatzaileak" ...eta kitto!-koak ziren, urte hartan hasi zirenak bertso-jaialdien prestaketetan. Maialenek gogora dakarkigun Orbea frontoikoa bigarrena izan zen, aurretik urte hartako Arratekoan izan baitzen elkartearen debutarena. Juan Mari Narbiza eibartarrarekin, Peñagarika-



Julio Soto.



Lujanbio txapeldun berria aurretik ere izan da Kantabriako bertso-afarian. Julio Sotorentzako, bestalde, lehenengo aldia izango da Arraten.

nok, Lizasok eta Egañak osatu zuten egun hartako laukotea. Orduko hartan ere bete zen Kantabria jatetxea eta aurtengo 18. edizio honetan ez da gutxiagorako izango: "Ekitaldiak hartu duen oihartzunarekin eta duen jarraipenarekin, behartuta ikusi genuen gure burua bazkideei behintzat modu egokienean erantzuteko; horregatik eskaintzen diegu hamabost eguneko epe hori sarrerak lortzeko, ohiko hiru tabernetan eskuragarri ipini aurretik. Hala ere, badakigu, urtero legez, jendea joan ezinik geratuko dela, sarrerak aurten ere agortu direlako. Barkamena eskatzea besterik ez zaigu geratzen, baina Kantabriak ez du gehiagorako ematen", dioskue antolatzaileek.

## Primerako laukotea bertsozaleak asetzeko


Orduko hartan etorri baziren, etorri ziren ba! Hor jarraitzen du, urtero, kalerik egin barik, Lizasok eta Egañak osatutako bikoteak. Horrelako "galaktikoe-kin" ezin saio kaskarririk irten eta jendea asetuta irtetzen da beti: batzuetan, zorateraino! Bertsolariak ere pozik izaten dira halako egoeran, euren onena emateko prest, amaierarik ez duten *segidillaz* lagunduta... Aurten ere, zeinek eman dezake gehiago? Zelako lau hanka paregabeko mahaian: betiko bikote fidelarekin, Maialen Lujan-

bio Euskal Herriko txapeldun berria eta Julio Soto Nafarroako txapeldun gaztea.

Hainbeste eta hainbestetan batera ibilita, izango da lekurik elkarrekin abestuko ez zutenik? Bata bestearen osagarritzat baititugu Duo Plaentxi ere ausartu ez den tokietan abestera animatu den izatezko bikote honetako partaide biak. Horrela, Getarian Elkanoren lehorratzea zela-eta, Sebastian eta Andoni arrantzale lagun batzuen itsasontzi batean atera ziren. Bazkalondoan bertsoan hasi eta patroiak irratia (itsasontziak elkarrekin harremanetan jartzen dituen) piztu zuen. Hogeita hamarren bat ontzitatik entzun zituzten euren bertsoak. Diotenez, baina, hor ez dute Arraten moduan errepikatu: behin bakarrik jardun baitute itsasotik itsasora berbetan.

## Txapeletara ohituta

Horrela daude martitzen gauean Kantabrian bisitatuko gaituzten lau bertsolariak eta maila handiko kartela osatzen dute. **ATZO**, hau da, 1986an, 28 urterekin irabazi zuen Bertsolari Txapelketa Nagusia **Sebastian Lizasok**. **BART**, hau da, iazko abenduaren 13ra arte aipatutako txapel hori buruan duela ibili ohi da **Andoni Egaña**, lau txapelketa nagusi irabazita. **GAUR**, baina, txapela egun horretan Joxe Agirrerren



Maialen Lujanbio.

eskutik jaso zuen **Maialen Lujanbiok** darama eta bera da erregina berria. **BIHAR**, ostera, lehen emakume txapeldunak beste bateri pasatu beharko dio sari/zama hori. Bere ibilbidea eta hartu duen martxa ikusita, zergatik ez da **Julio Soto** izango? Bertso-afarian izango direntzako ezezagunena izango da Gorritiko 22 urteko gaztea. Nafarroako txapelketan azken buruz-burukorik egin gabe gailendu zen, puntuetan alde nabaria atera zuelako aurretik. Euskal Filologia ikaslea da eta kaletik baserrira bizitzera joan da. Aipatutako txapela baserritarrei eskaini zien gainera, "mespretxatu horiei" esker oneko bertsoan esan zuenez. Eta bere lagun guztiak bertsolariak direla dio, denek bertsoan egin ez duten arren.

Ea, bada, martitzeneko gauak lekuko guztien oroimenean irauten duen hemendik beste hamazazpi urtera. Ez da, ez, seinale txarra izango! On egin!

## YE-YE eta SKA doinuak gaupasarako

S anjuanetan txosnak ipintzeko tokia-  
ren inguruan piztu zen eztabaidaren  
ondorioz herriko taldeek txosnarik ez  
ipintzea erabaki eta gero, jende asko ardu-  
ratuta zegoen txosnen etorkizunarekin. Are  
gehiago, San Juan jaien ondoren oportreta-  
tik bueltan Arrateko jaiak bertan egonda.  
Izan ere, adin batetik aurrerako eibartarrek  
txosnak ipintzeko ohitura hori azken urteot-  
tako "moda" den arren, beste askok ezin du-  
te Arrateko jairik ulertu zelaian txosnarik  
egon ezean. Iritziak iritzi, aurtengo Arrateko  
jaietan ez da txosnarik faltan izango. Eta ez  
hori bakarrik: azken urteotan baino askoz  
ere talde gehiago animatu da txosna ipin-  
tzeko baimen-eskaera aurkeztera eta, eska-  
erak onartzeko ardura duen Udaleko Zerbi-  
tzu sailak emandako zerrendari jarraituta,  
13 taldek ipiniko dute txosna aurtengo jai-  
tan (erredakzioa ixteko orduan talde biren  
behin betiko erantzuna jasotzea besterik ez  
zen falta). Taldeak honako hauek dira: Uste-  
kabe Fanfarrea, Tallarra Gaztetxea, Quere-  
mos Mas, Eibar Rugby Taldea, Eibarko Gaz-  
teria, Errepresioaren Kontrako Taldea, Ez-  
ker Abertzalea, LAB Gaztea, LAB, Urbat  
Igeriketa Taldea, Eibart Eibarko Artisanauk,  
Gazteak Foball Taldea eta Arragueta Fest.

### The Sparteens eta Vendetta kontzertuan

Txosnek, jendeari edatekoa eta jatekoa  
eskaintzeaz ez ezik, jaietako egitarau ofizia-  
letik kanpora eta bertako ekitaldiak osatzera  
datorren beste programazio bat prestatzeko  
ardura izan ohi dute. Horren harira, Jaixak  
Herrixak Herrixandako taldeak hainbat eki-  
taldi prestatu ditu, Krabelin eta Kantabria ja-  
tetxeen laguntzarekin.



Hilaren 7an, Arrate Egunaren bezperan,  
21.00etan herri-afaria egingo da zelaian  
bertan. Joan nahi duenarentzat txartelak 5  
eurotan salgai ipini dituzte, Monteka, Kultu  
eta Deportibo tabernetan. Eta 23.00etatik  
aurrera, nola ez, rock kontzertua. Martitzen  
gauean taula gainean izango diren taldeak  
The Sparteens eta Vendetta dira.



Vendetta taldea.

Musika kontuetan oso jantzita ez daude-  
nentzat, gutxieneko dato batzuk, zer aurki-  
tuko duten imajinatzen hasteko: The Spar-  
teens taldea Hendaiatik datorrigu eta ye-ye  
estiloari (60ko hamarkadan Espainia eta  
Frantzia sortutako pop estiloari) jarraitzen  
dio, pop eta rock estiloko abesti ezagunak  
horretara moldatuta aurkezteko erronkari  
helduta. Imaginatu ditzakezue "Zu atrapatu  
arte", "Txus" edota "God Save the Queen"  
bezalako kantuek ye-ye estiloan? Ba burua-  
ri eragiteari laga, proposamen hori zuzene-  
an ikusteko aukera izango duzuelako.

Eta haien ostean joko duen Vendetta tal-  
deak, berriz, ska erritmoak eskainiko ditu.  
Orain urte eta erdi lehen diskoa argitara  
eman zuen taldeak datorren urtean bigarre-  
na kaleratzeko beharrea dihardu eta lan  
berriko single batzuk aurreratzeko moduan  
izango dira.

Talde bien emanaldia amaitzean, baina,  
jaiak jarraituko du: jokoak eta karaokea  
prestatu dituzte eta, gauak aurrera egin  
ahala, DJ As-ek ipiniko dio musika Arrateko  
zelaiko "gaupasari". Eta Arrate Egunerako,  
berriz, 12.30etan preso eta iheslarien alde-  
ko elkarretaratzea dago deituta eta  
13.30etan Udalbiltzaren aldeko babes tal-  
dearen argazkia aterako dute.

**KATU**  **KALE**  
**BIDEBARRIETA, 1** **TABERNA**

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
**104,0 FM**

**Izadi**  
**LORADENDA**  
- Lora eta landare  
natural eta lehorrak  
- Ezkontzetarako lorak  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



**IRAZABAL**  
clínica dental


Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

*Udazken honetan  
zure irribarrea modan*



**ANTONIO MURILLO** Doktorea:  
Masterra Periodontzian eta Inplantologian



**AINHOA ZULUETA** Doktorea:  
Odontologia



**DIAGNOSTIKOA  
KONPROMISO GABE**

**BENETAKO  
PAZIENTEAREN  
IRUDIA**



**€ibarko erdi aldera  
etorri gara**



Bezero eta lagun  
guztiak gonbidatuta  
zaudete **LOKAL  
BERRI**aren inauguraziora

**TEL. 943 702024**



**GAUR  
barixakua  
19.00etan**

**Zboga**

**ESTILISTA K Ifar kale, 6**

San Andres Parrokiaren aurrean

**A**rrate Ballia Eltzartzagatik hasi eta Saturxoraiño daren terrenuak osatzen dabe, Zubiaga eta Argiano errekatxuen eta Arramendi inguruko lurak barne. Ez da larregi aldatu azken urtietan eta, seguru asko, Arrate Ballia izango da gaur egun, Agiñaga baillariakin batera, herrixan basarri eta basarritarren mundua onduen gorde daben auzua; lur aldetik baillara txikixa izan arren, basarri ugari topatuko doguz auzo honetan eta gehixenak martxan.

Ballia Arrateko Basilikian inguruan bizi izan da beti eta, urtietan zihar, Arexita eta Arizmendi izenegaz be ezagutu izan da. Basilika ingurua izan da beti auzokide guztiak batu



## Herriko baillara aldapatsuena

izan dittuan lekua: mezetara bertara igotzen ziran, jai eza-gunenak be bertakuak ziran eta Arraten egitten ziran pilota-partidu bizixenak, idi-proba gogorrenak eta dantzarik ederrrenak. Tabernia be (gaur egun Kantabria izenez ezagutzen dana) aspaldittik dago Bekoetxe basarrixan lehengo pisuan.

Eibarren maldarik iñun falta ez bada be, malda pikarra nunbaiten egotekotan, Arrate

Ballian dago. Halanda be, lurra nahiko ona da eta auzoko basarritarrak uzta edarrak etara dittue urtietan zihar. Garixa eta artua izan dira basarrixan oiñarrixa, baiña beste barazki mordia be batzen da inguruetako lur jorixa aprobetxatuz eta eziñ ahaztu mendixak emoten dittuan gaztaiñak eta sagardaua egitteko sagar gozuak.

27 basarri dittu auzuak gaur egun eta, daken balore historiko eta artistikuengaittik, Sa-

gartegieta, Unzeta eta Barre-netxe dira aipagarrixenak; Sagar-tegieta erdi-jausitta dago, baiña jauregi ederra izan da. Arizmendixak be sekulako garrantzixa euki dabe baillarían historixan eta badirudi XVII eta XVIII. mendietan Arizmendi basarrixan inguruan antolatzen zala auzuan bizitzia. Horretaz gain, Lezeta, Kutunegieta, Argiñao, Arexita edo Pagoaga be izen ezagunak izan dira Eibarren.



Aitor Gisasola Andiraako presidentea elkarteko beste kide batzurekin. / ARTXIBOA

*Badira sei bat urte ANDIRAO Eibarko basarritarren alkartia sortu zala. "Gaur egun herriko basarritarren %90 dago alkartian" diosku AITOR GISASOLA bertako presidentiari. Basarritarren eta Udalaren artian bittartekaritza lana egitteko sortua, "batez be, dittugun kezkek eta aurkitzen dittugun akatsak erakundietako arduraduneri jakiñarazteko helburuarekin dihardugu lanian", diño Gisasolak. Harreman horretan hainbat tirabira izan badira be, "azken aldixan emoten dau gauzak hobera egin dabela, txarto ulertziak eta halakuak baztertuta, eta hainbat proposamen aurrera egingo dabela" berak diñuen ez. Mariajose Telleria Euskara eta Kulturako zinegotzixa da gaur egungo auzo-alkatia be.*

**- Zer proiektu dittuzue esku artian? Edo zeintzuk dira premiña gehixen dakenak, zuon ustez?**

Pista batzuk hormigonatzeko dittugu, 3-4 bat kilometrokuak. Eta baita beste bi puntura ura eramatiarena be. Arazo nagusixena presupuestuarekin izaten dogu, urtero kopuru zihatziaren barruan sartu biharra dakagu-eta. Zaila izaten da hor kabitzia.

Bestalde, saneamentuaren arazua be konpondu biharra dakagu. Alkatiarekin egin-dako azken billerak probetxugarrixak izango diralakuan gagoz.

**- Ikastaruak be antolatzen dozue, ezta?**

Bai, pare bat edo izaten dira urtero prestatzen dittugunak, Debemenekin alkarlanian, batez be gure biharrei egokitzen dira la begiratuta.

**- Arrate ondo zainduta dakagula esango zeunke?**

Ez dakit ba. Zeozer gehixago bihar da, azpiegituretan-eta. Badakaguz proiektu txikixak eta espero dogu aurrera egittia.

**- Azken aldixan gazte jendia be irabazi dozue basarrixetan, ez?**

Bai, gero eta gazte gehixago dago Arrate inguruan, gehixenak biharra kalien egiñ arren.



**SA MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA



**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

# ITURRI

ARDOAK

ETNERA ERAMATEN DUGU

Eibarko Merkatu Plaza - Rialto

Tel. 943 12 05 87

# 3000 saritik gora zuen zain

**A**rrate eguna berezia dela eibartarrondako danok dakiugu, Eibartik kanpo ere bai, behin baino gehiagotan esan dugu eta guztiok. Azkenengo urteetan Arrate eguna oparien eguna izaten saiatu da ...eta kitto! Euskara Elkar-tea, eta bai lortu ere. Hurrengo orri bietan dituzuen enpresa, denda eta komertzioei esker, Kittonbolia sariz betetzea lortzen dugu. Guztira, 3.000 saritik gora batu ditugu azkenenengo hila-beteetan eta datorren eguaztenean guztiak izango ditugu Arraten, banatzeko prest.

Aste Santu ostetik dihardugu antolaketa lanetan, sariak jasotzen eta prestatzen. Zortea guztion esku izateko asmoarekin antolatu dugu berriro



SILBIA HERNANDEZ

ere Arrateko tonbola berezia. Baina Kittonbolia zortea zirikatze-ko tonbola baino gehiago da, ...eta kitto! Euskara Elkar-tearen proiektuari laguntzeko modua ere ba-

da, Eibarren euskara bultzatzeko modua; hori bai, parte hartzen duen eibartarrak saria jasotzeko aukera asko ere badu.

Gainera, eibartarrek eskainitako laguntasunak gure egunerokotasunean egiten ditugun ekitaldietan, aldizkariaren argitaratzean eta abar-rean eragin zuzena izango du. Urte osoan zehar lanean jarraituko du ...eta kitto! Euskara Elkar-teak Eibarren euskara bultzatu eta indartu nahian, eta horrelako egunek asko laguntzen dute.

## 10.00ETAN ZABALIK

Betiko moduan, sari-  
ren bat irabazteko aukera ez da txikia izango: telebistak, afariak, urdaiazpikoak, janari loteak, edertasun tratamenduak, etxeko tresnak, kamisetak, CDak, MP-5a, bizikleta, Nintendo DSa, otarrak etabar luzea. Guztira

3.000 sari baino gehiago. Hori guztia lortzeko ezinbestekoa izan dugu hainbat denda, enpresa eta elkar-terren kolaborazioa. Hurrengo orri bietan dituzue laguntasuna eskaini duten guztien zerrenda.

Beraz, eguaztenean elkar ikusiko dugula espero dugu. Goizeko 06.00ak bueltan izango gara Arraten azkeneko antolaketa lanak egiteko eta 10.00ak puntuan salduko dugu lehenengo boletoa. Goizean goizetik sariak banatzen hastea espero dugu.

Ikasturte berria hasiko dugu guztiok egunotan, gaztetxoek eskolan, nagusiok lanean, gehienondako udako oporraldia amaitu da-eta. Horri aurre egiteko jai giroa baino hoberik ez dago eta Arrateetako jaiak eta Kittonboliak, besteak beste, hori dute helburu: ikasturte berria ezin hobeto hastea.



# Kittonbolia

# KITTONbolia



Euskara Elkarte

*Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera asko izango dituzue. Eskerrik asko parte hartu duten denda eta enpresa guztiei!!!*

## • Alfa



- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Asegarce
- Aspe



- Astigarraga
- Athletic Club
- Ayerbe liburudenda
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak



- Baglietto
- Basik
- Batzokia
- Benicoba
- Burbujas y más

## • Cadenas Iris



## • Calefacciones Eibar



- Capi
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- E&M
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Kirol Elkarte/S.D. Eibar



- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida



- El Casco
- El Corte Ingles



- Emankor taldea
- En boga ileapaindegia
- Eroski Ipurua
- Errebal kirolak
- Eskarne jatetxea
- Eslune
- Esteban Oroz



- ...eta kitto!
- Gar Men
- Gerritek



- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Hodei
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi

Eskerrik a



## OSTALARITZA - VENDING

Zure zerbitzura

ostalaritza • enpresentzako •  
erregistro eta gestio sistemak




Polonia Ekeberri 14-16 • EIBAR

Tel: 943 20 51 12

Fax: 943 20 17 64

urkotronik@urkotronik.com



- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- J.D Arrate
- Jauregui



- Leder
- Lide
- Manpel
- Marian-Idoia spa
- Meka-Hotel
- Mega
- Mercasindo
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Narrua
- Neure
- Orbea




- Solera Estankoa
- Su Beroa
- Talleres AIBE
- Tribeka



- Jaz- Zubiaurre



- Pirritx eta Porrotx




- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia



- Kerala
- Ketesa
- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Lakett
- Laumar loradenda

- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa



- Trinkete



- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zahor



- Zero (J'etaime)
- Zurkulu

asko zuen laguntzarengatik

# Arrateko Amaren Jaixak 2010

## Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

**18.00.- MEZIA** Arrateko Santutegixan eta, ondoren, Salbea. Jarraixan, **TXUPINAZUA** eta kanpai-errepika.

**21.00.- BERTSO AFARIXA:** Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Julio Soto. Gaijartzaillia: Asier Ibaibarriaga. Kantabria jatetxian. *Antolatzaillia: ... eta kitto! Euskara Elkarte.*



## Irailak 8, ARRATE EGUNA

**10.00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta **ARRATERA IGOERIA**, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko dittue Zesteroko iturrixan. *Betikuak-ek antolatuta.*

**10.00.- KITTONBOLIA!**

**10.30.- KALEJIRIA** Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.

**11.00.- MEZA NAGUSIXA** Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren **EZPATA-DANTZIA** egingo dabe.

**12.30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dittue **ZELAIXAN**: ezpata-dantzia eta makilla txikixen dantzia.

**13.30.- TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXEN** saiua.

**14.30.- LAGUNARTEKO BAZKARIXA** Krabelin Jatetxian.

**17.00.- BERTSOLARIXEN** saiua.

**17.30 / 21.00.-** Bete zaitez... baina emozioz! **ALKOHOLAREN INGURUKO KANPAIÑA** informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) alkoholemia kontrolak egingo ditu. *Antolatzailliak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.*


**17.30.- DANTZA SOLTE TXAPELKETIA.** 10 bikote onartuko dira, alde zurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakua eta beste bost 15 urtetik beherakua).

**19.00 / 23.00.- DANTZALDIXA**, Luhartz taldiarekin.

## **Irailak 12, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilauren eguna**

- 10.30.- SIMÓN ALDAZABAL XV. ANTIXIKETALDIXA.** Ernesto Riañori omenaldixa. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11.00.- MEZA NAGUSIXA** bertsolarixekin. Meza ostian, **AURRESKUA** Kezka Dantza taldiaren eskutik. Ondoren, **PROZESIÑUA** Usartza Txistulari Bandak lagunduta. Zaindarixari eskintza.
- 12.00.- PILOTA PARTIDUAK.** *Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportiboa.*
- 12.00.- PAELLA LEHIAKETIA.**
- 12.30.- HERRI KIROLAK.**
- 14.00.-** Pilota txapelketa eta paella lehiaketa irabazi dabeneri **SARIXAK BANATZIA.**
- 14.30.- JUBILAUENDAKO BAZKARIXA** Kantabria Jatetxian. Basarritar nagusixeri oparixak banatuko jakuez eta Ziriako Ortiz de Zarateri omenaldixa egingo. Trikitilari eta bertsolarixak be hartuko dabe parte.
- 17.30.- IDI PROBAK.**

### **Arrate egunaren inguruko mezak**



- **ARRATEKO AMAREN BEDERATZIUURENA**  
Abuztuaren 30az geroztik eta irailaren 7ra arte, egunero, 18.00etan (mezarekin). Irailaren 5ean izan ezik (egun horretan domeketako 12.30etako mezaren barruan egingo da).
- **MARTITZENEAN (ARRATE BEZPERAN):**  
18.00.- Salbea, Arrateko santutegian.
- **EGUAZTENEAN (ARRATE EGUNEAN):**  
09.30etan, 11.00etan (Meza nagusia Arrateko santutegian eta, ondoren, prozesioa), 13.00etan eta 18.00etan.
- **KOFRADIA EGUNEAN (IRAILAK 12):**  
11.00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.

## **Jaixak Herrixak Herrixandako**

### **Irailak 7, Arrate bezperia**

- 21.00.- HERRI-AFARIXA.** Txartelak 5 eurotan salgai, Monteka, Kultu eta Deportibuan.
- 23.00.- KONTZERTUA:** The Sparteens eta Vendetta. Ondoren, jokuak eta karaokia. Gabak aurrera egiñ ahala, DJ As.

### **Irailak 8, Arrate Eguna**

- 12.30.-** Preso eta iheslarixen aldeko **ELKARRETARATZEA.**
- 13.30.-** Udalbiltzaren aldeko babes taldiaren **ARGAZKIXA.**

*Antolatzaillia: Jaixak Herrixak Herrixandako.*

*Laguntzailliak: Krabelin eta Kantabria jatetxiak.*

### **Telefono jakingarriak**

- LARRIALDIAK.– SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222. DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.**
- OSASUN ZENTROAK.–** Larrialdiak: 943461111 /943440633. Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.
- BESTEAK.–** Suhiltzaileak: 112/943202328. Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.
- GARRAIOAK.–** Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak: 943201325. Eusko Trenbideak 902543210 / 943120546.

### **Autobus zerbitzua**



- Arrate **BEZPERAN** Eibartik Arratera igotzeko autobusik ez da izango.
- **ARRATE EGUNEAN,** Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, eta 07.00etan. Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarria kaletik irtengo dira 09.00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena 21.00etan irtengo da Arratetik.
- **KOFRADIA EGUNEAN** (hilaren 12an), jaien errepikapena dela-eta, ohiko ordutegian ibiliko dira autobusak, baina zerbitzua indartuko dute. 09.00etan, 10.00etan, 11.00etan, 13.00etan eta 18.00etan irtengo dira autobusak, Urkizuko autobus geltokitik, eta ohiko geltokietan geratuko dira.

## Ander Romarate seigarren igeriketa Mundialean

### HAMASEI URTEKO EIBARTARRAK OSO MAILA ONA ERAKUTSI DU HOLLANDAKO IGERIKETA EGOKITUKO MUNDIALEAN

eta Espainiako marka haustea lortu du. Herbeheretan abuztuan jokatutako txapelketa horietan Urbat-Urkoironikeko igerilariak 6. postua eskuratu du bizkar erako 100 metroko proban eta 5.a ere segundo hamarreko bakarrera izan du. Lortutako denborekin, Romaratek 2012ko Londreseko Paralinpikoetarako txartela eskuratu du.

Uztailean, berriz, udako infantil mailako Espainiako txapelketetan, Urbateko Nora Varelak bikain jardun zuen. Bere markak hobetzeaz gain, 200 braza estilo-ko finalean sartu zen, 7. postua eskuratu; eta estilo bereko 100 metrotan B finalerako sailkatu zen, hor 11. postuan amaituz.



## Areto-foballeko Concepto-Createch igotzeko asmoz

### HORRETARAKO FITXATU DU, GAINERA, ENTRENATZAILE BERRIA. JUAN ANTONIO RODRÍGUEZ DA BERA eta Euskal Herriko onenetakoen artean dago eta aurretik Lauburu Ibarra taldearekin hainbat urtetan jardundakoa dugu, talde hori Zilarrezko B mailaraino igotzea lortuz. Gero Castro Urdialesen jardun du eta baita Euskadiko selekzioan ere, 18 urtetik beherakoekin. Concepto Createch-ek B Nazional mailan dihardu eta A mailara igotzea nahi du aurten. Argazkian, Lozano Espainiako areto-foballeko gaur egungo presidentearekin (aurretik selekzio hautatzailea izandakoa eta Europako eta munduko txapelduna).

gero eta indar handiagoa hartzen diharduen torneoan. Finala penaltietara erabaki zen, irabazleek aurretik Estiu Gironí (hauek ere katalanak) 6na berdindu eta gero. Bigarren urtez jarraian azken talde horretako Joan Lluís Albellak irabazi zuen goleatzaile nagusienaren saria.

## Sabadellekoak nagusi Mutrikuko waterpolo-hondartza torneoan

UZTAILEAN JOKATU ZEN MUTRIKUKO WATERPOLO-HONDARTZA TORNEOKO IV. EDIZIOA ETA, Sabadelleko Unibertsitat Autonomak irabazitako lehian, Urbat-Urkoironikekoak 5. postuan sailkatu ziren. Hamar talde izan ziren guztira ikusle mordoak jarraitu zuen

gero eta indar handiagoa hartzen diharduen torneoan. Finala penaltietara erabaki zen, irabazleek aurretik Estiu Gironí (hauek ere katalanak) 6na berdindu eta gero. Bigarren urtez jarraian azken talde horretako Joan Lluís Albellak irabazi zuen goleatzaile nagusienaren saria.



## LUIS MARI BARRIUSO VILLANUEVA

(2010eko uztailaren 28an hil zen)



**Zure gorputzaren esanek izarretara eraman zaitue, Jalo maitia; baina esalezu, esan, izarrei, sekula ez digutela kenduko zure oroimena, bakarrik egongo ez zaralako bere besoetan, baizik eta betirako gure bihotzetan.**

**ZURE BETIKO LAGUNAK**



# GATE

English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA  
INGELES-FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

## ...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu

Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea

Eskaera:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskera ondo jakitea ezinbestekoa



Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik

## Hilaren 9an hasiko da denboraldi berria Kalamua judo taldean

**OPOR ALDIAN ERE LANEAN IBILI DIRA KALAMUA TALDEKO JUDOKA BATZUK** eta, horrela, Eneko Lores eta Nekane Muguruza, teknika ikastaroan parte hartu eta gero, ondoren jokatutako lehiaketako irabazle izan ziren.

Bestalde, datorren egunean, hilaren 9an, hasiko dira denboraldi berrirako klaseak eta entrenamenduak, honako ordutegiarekin: umeen kasuan, martitzen eta eguenetan edo astelehen eta eguaztenetan, 17.30etatik 18.30etara; helduen kasuan, astelehen, eguazten eta barixakuetan, 19.30etatik 21.00etara; emakumeen babeserako, martitzen eta eguenetan, 19.00etatik 20.30etara; jiu-jitsu brasildarrean, martitzen eta eguenetan, 20.30etatik 22.00etara; eta jiu-jitsu japoniarrean, astelehen, eguazten eta barixakuetan, 18.30etatik 20.00etara. Edozein kontsultarako, 943-700076 telefono zenbakira deitu daiteke.




## Herriko xakelariak Italian

**ABUZTUAREN 21-ETIK 29-RA KLUB DEPORTIBOKO XAKE ORDEZKARITZA IZAN DA ITALIAN**, Adriatiko itsasoko kostaldean dauden Fermo hirian jokatutako I. Xake Jaialdian. Mikel Larreategik, Jon Aranak, Haritz Garrok, Edu Olabek eta Julen Garrok osatu dute taldea, Arrasateko Asier Etxagibeekin batera..

Guztira 200 jokalaritik gora izan dira eta hiru txapelketa jokatu dira aldi berean, bat berezia 16 urtez azpikoentzat. B txapelketan 12. postua lortu du Larreategik. Nazioarteko Federazioaren zerrendan puntuazioa lortzeko ondo baliatu dute eibartarrek torneoa.

## Foball-7ko Kopa fasea La Naranja Mekanikarentzako

**UZTAILEAN AMAITU ZEN FOBALL-7KO KOPA FASEKO FINALA LA NARANJA MEKANIKARENTZAKO IZAN ZEN**, uztailaren 23an jokatutako partidua horretan Kilimon taldeari 2-1 irabaziz. Hiru egun lehenago jokatutako finalerdietan, Kilimonek E.G.S. kalerratu zuen eta La Naranjak Hau Duk Azkena.



## Usobiaga liderra Mundukoan

**HEGO KOREAKO CHUNCHEON HERRIAN JOKATUTAKO MUNDUKO TXAPELKETAKO 3. JARDUNALDIAN**, Patxi Usobiaga eskalatazailerak garaipena lortu zuen eta, horrekin batera, sailkapeneko lidergoa eskuratu. Orain eibartarrak berderatzi puntu ateratzen dizkio Ramon Julián bigarrenari, 31 Adam Ondra azken txapeldunari eta 52 Sachi Ammari. Izandako lesioaren ondoren, honakoa da Patxiren lehenengo garaipena. Munduko Koparako hurrengo zita Belgikan izango da.

**Link idiomas**

Member of Cambridge ESOL Centre ES438

**INGELES  
FRANTSESA  
ALEMANA**

**UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT**

**TALDE MUGATUAK**

**BAKOITZARI EGOKITUA**

**ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA**

**CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA.**

**MAILA GUZTIAK**

**Juan Gisasola, 5 (EIBAR) Telefonoa: 943 20 39 59**

**Bacoleky**

**ardotegia** **INAUGURAZIOA**

**irailaren  
7an**

**arratsaldeko  
7.00etan**

**Urkizu, 11 - behea**

## Arratek maila ona eman du aurrendenboraldian

**AZKEN DENBORALDIKO PLANTILAREKIN EZ ZU ANTZ ASKORIK AURTENGO-AK,** baina horregatik ez dirudi iaz baino maila baxuagoan ibiliko denik; batez ere, aurrendenboraldiari erreparatzen badiogu. Julian Ruizek zuzentzen duen taldeak Egiako torneo garrantzitsua irabazi du finalean Leongo Ademar taldeari 32-30 gailenduta. Horko finalurrekoan Amaya San Antonio laga zuen bidean, berdindu eta gero penaltietan irabaziz. Hori bai, herenegun Tolosan jokatu-tako neurketan, nafarrak 21-20 nagusitu ziren. Sergio Cid izan zen goleatzaile nagusia.

Aurrendenboraldia hasteko, bestalde, eibartarrek Santanderren Adelmari irabazi zioten 23-34 eta Guadalajararekin 25na berdindu zuten. Hainbeste partidu jarraian jokatu ondoren, nekea igarri zitzaion talde-

ari Elgoibarren eta Nanteseekin galdu zuten 26-34.

Iazko taldetik baja izan dira Dalibor Cutura kapitaina, Marc García, Obvran, Töro, Arroyo, Serrano eta Garate. Horiek ordezkatzeko, Szabo 1. Nazionaletik igotzeaz gain, taldeak Ivan Sever pibot kroaziarra, Kurilenko hegaleko ukrainiarra eta Petrichev erdiko moldaviarra fitxatu ditu.

Denboraldi berrirako abonak berritzeko epea zabalik dago, hainbat modalitatetan: 13 urtera arte, 30 euro; 14tik 21 urtera arte, 60; helduen abonoa, 130; eta familiarra, 200. Horrez gain, bazkide babeslearen figura (300 euro eta abono bi) eta bazkide industrialarena (600 euro eta lau abono) dauka. Interesatuak 943-255001/02 telefono zenbakietara deitu dezakete edo, bestela, J. Etxeberriako bulegotik pasa.



Egiako torneo irabazi duen taldea, trofeoarekin.

### ATEZAINAK:

Igor Moyua eta Blaz Voncina



### 1. LERROKOAK:

István Redei, Tin Tokic, Bogdan Petricevic, Thamas Szabo (1. Nazionala), Kostyantyn Kurilenko (Bielorrusiako Meskov) eta Igor Petrichev (Poloniako Focus Park)

### 2. LERROKOAK:

Sergio Berrios, Sergio Cid, Bojan Beljanski eta Ivan Sever (Esloveniako Rk Krsko)

1. Nazional mailako Jon Alzagak, Iker Romerok, Mikel Arrietak eta Javier Peñak (Alacanteko Agustinos) aurrendenboraldia aurrekoekin egin dute.



Eibarko lehen taldea aurkezpen egunean.

### ATEZAINAK:

Zigor eta Iruretagoiena

### ATZELARIAK:

Kijera, Raul Gañán (Salamanca), Urzelai, Dani Salas eta Añibarro

### PIBOTEAK:

Alex Albistegi (Real Sociedad), Garro, Valín, Lombraña eta Aba-roa (Eibar B)

### ERDILARIAK:

Carlos Ruben, Vincent Weijl (Liverpool B), Alex Garcia, Altuna, Cuevas, Manuel Lanzarote (Sant Andreu) eta Hadzic (Hércules)

### AURRELARIAK:


Lago Junior (Numancia), Gustavo Souto (Guadalajara) eta Diego Cascón (Alcorcón)

## Eibarrek talde lehiakorra osatu du denboraldi berrirako

**AZKEN EGUNAK MUGIMENDU HANDIKOAK IZAN DIRA ALEX ARANZABALEK ZUZENTZEN DUEN TALDEAN** eta taldearen aurrealdea, batez ere, guztiz berritu da. Palentziaren aurkako norgehiagokan askok taldean zegoela ere ez zekiten Numantziak lagatako Lago Juniorrek sartu zituen gol biak: horrelako fitxaketarik gutxitan eman da inon! Eta, jarraian, aste honetan bertan, justu epea itxi behar zenean, etorri dira azken jokariak Manixen taldera: Lanzarote eta Hadzic hegalekoak Alcorcóneko Cascón aurrelariarekin batera. Horrek ekarri du hainbat jokalarik taldea laga behar izatea: Arruabarrena aurrelaria

Leganés-era joan da, Etxaniz Zamorara eta Manu García eta Iñigo Ros, Jaenetik etorritako biak, fitxa barik geratu dira: Rosen kasuan urtarrilera arte, lesionatuta baitago une honetan.

Kopako bidea di-da amaitu da taldearentzat aurren, Liga hasi aurretik Oviedon kanporatu baitzuten Javier Mandiolaren taldea.



Lago Junior goleatzailea.


NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA

## BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Elgoibarko  
**NETTO**n ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

## ARRATEKO AMAREN JAIAK 2010



antolatzailea:  
**EIBARKO UDALA**

laguntzaileak:  
ANDRAO ELKARTEA, URTIA KITTOL, BERTULAK,  
EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, KEZKA DANTZA TALDEA

**irailaren**  
**7, 8 eta 12an**

*Egun gutxiren buruan kurtso berria hasiko dute ikasleek eta, oporretan atsedean hartu ondoren, haur zein heldu askok indarberrituta ikusten dute euren burua. Horrekin animatuta, batek baino gehiagok proiektu berriari ekiteko gogo bizia izaten du eta agendan gustuko zaletasunez tartea egiten ahalegintzen da. Gaur egun aisialdian, eskola edo lanetik kanpora landu daitezkeen zerrenda egiten hasiz gero, denboratxo emango genuke zerrenda amaitu orduko: hizkuntzak ikasi, musika instrumenturen bat jotzen hasi, kirolen bat praktikatzeko hasi edo beste hamaika ikastarotan parte hartzeko aukera norberaren esku dago eta herritik irten barik ere badago non aukeratu. Portalean bertan, musikan ez ezik, pinturan zein zeramikan trabatu daitezke ume eta helduak. Dibujo Eskolako talde batzuetan oraindik toki libreak daude eta, horregatik, matrikula egiteko epea irailaren 10era arte luzatzea erabaki dute. Eta gauza bera egin dute Zeramika Eskolako matrikulazioarekin, bertako irakasle arduraduna den Esther Galarzak azaldu digun moduan.*

## Zeramika Eskola 2010/11 ikasturtea – ordutegiak

### Umeak (8-11 urte)

Astelehen eta eguaztenetan, 17.00etatik 19.00etara.

Astelehenetan, 17.00etatik 19.00etara.

Eguaztenetan, 17.00etatik 19.00etara.

### Gazteak-helduak (12 urtetik gorakoak)

Martitzen eta eguenetan, 17.00etatik 19.00etara.

Martitzenetan, 17.00etatik 19.00etara.

Eguenetan, 17.00etatik 19.00etara.

### Helduak (16 urtetik aurrera)

Martitzen eta eguenetan, 19.00etatik 21.00etara.

Martitzenetan, 19.00etatik 21.00etara.

Eguenetan, 19.00etatik 21.00etara.

### Matrikulazioa : Irailaren 15era arte, Pegoran.

*Prezioa aukeraturako klase kopuruaren arabera zein diru-sarreraren arabera aldatzen da. Pegoran bertan, izen-emateko orriari kontsultatzeko moduan dago.*



## ESTHER GALARZA: “ZERAMIKA IKASTEKO ez da aparteko ezagutzarik behar”

**- Matrikula betetzeko orduan adinaren arabera bereizketa egiten duzue. Gazteei zuzendutako programan zer lantzen duzue?**

Berez ez da horren alde handirik izaten gazteen programa eta helduen programaren artean. Gazteen kasuan, adibidez, bola batetik hasi eta formak nola landu behar dituzten ikusten goaz, materialarekin ohitzen, buztina nola josi, margotzen... ikasten joan daitezten. Hona etorri aurretik ezagutzen zizuten formak, dimentsio bitan lantzen zizutenak, 3. dimentsiora pasatzen dituzte,

hori da aldaketarik nabarmena. Horrekin batera nahi den emaitza lortzeko eman beharreko pausoak ikasten doaz.

**- Eta helduen kasuan, zelako gaiak ikutzen dituzue?**

Aipatu berri ditudanekin batera, nahi duenak tornea erabiltzen ikasteko aukera dauka. Plantxak erabiltzen ditugu, hainbat teknikaz baliatuta, eta plantxa horiekin mural txikiak, ispiluak, mahaitxoak... egiten ikasten dute. Berez, 8 urtetik aurrera edo zeinek ikasi dezake zeramika nola landu, ez da alde aurretik ezagutza berezirik izan

behar, ezta aparteko eskurik ere. Ikasturtean zehar ikasle guztiek hainbat pieza sortu eta amaitzen dituzte. Gainera, bakoitzak berea landuta ere, elkarlanak garrantzi handia dauka eta hori da politena, batzuk erreztasun gehiago izanda ere, kolektiboki, taldean egiten dela lan. Gero, ikasturte amaieran beti egiten dugu erakusketa, ikasle guztien lanekin, Gabonen inguruan jaiotzarako piezak lantzen ditugu, Euskal jaiaren inguruan Raku erakustaldiarekin eskolako lana kalean ezagutzera ematen dugu...



DEBABARRENAKO, DEBAGOIENAKO ETA DURANGALDEKO MUSIKA TALDEENTZAT DA

## Irailaren 17ra arte eman daiteke izena

**H**ilaren 17ra arte dago zabalik Danbaka musika lehiaketan izena emateko epea. Goiena Komunikazio Kooperatibak antolatzen du eta 4. edizioa da aurtengoa, bi urte tik behin egiten baitute. 2004an sortu zen lehiaketa, Debagoienako taldeei bultzada emateko; hala ere, 2008an Debabarrena eta Durangaldera zabaldu zen eta horrela jarraituko du aurten.

Parte hartzeko, ezinbestekoa da taldekide bat hiru eskualde horietakoren batean bizitzea eta taldeak diskoetxeekin hitzarmenik ez izatea. Aurreko edizioetan parte hartutako taldeek berriz ere parte hartzeko aukera izango dute, beti ere finalera ailegatu ez baziren. Interesa dutenek hiru abesti original aurkeztu beharko dituzte, CD edo mp3-an; horrekin batera, talde edo bakarlariaren argazkiak, biografia txiki bat, harremanetarako helbidea, telefonoa eta e-posta eman beharko dituzte danbaka@danbaka.com helbidean edo, posta arrunta erabilita, Goiena Komunikazio Zerbitzuak-en helbidera idatzita (132 postakutxa, 20500 Arrasate).

Dena dela, izena ematea ez da nahikoa agertokira igotzeko. Hogei talde aukeratuko dira guztira: 19 epaimahaiaren erabakiz eta beste bat ikus-entzuleek, internet bidez bozkaturuta, Danbakako webgunean (www.danbaka.com) talde guztiak ezagutzeko aukera izango baita. Kontzertuetara bertaratzin direnek ere izango dute bozka eskubidea, publikoaren saria ere emango baita. Talde irabazleak, bestalde, musika instrumentu bat aukeratzeko bonoa izango du opari.

Elgetako Espaloia kafe antzokian izango dira kontzertu guztiak, 22.30etan hasita. Kanporaketak urriaren 22an, azaroaren 5ean, 19an eta 26an, eta abenduaren 17an izango dira; finala, berriz, urtarrilaren 14an egingo da.

### Norman izan zen finalista azken edizioan

Urteroko legez, aurten ere lehiaketa irabazten duen taldeak disko bat kaleratzeko aukera izango du, Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin elkarlanean. Aurten, gainera, berrikuntza moduan, Debagoienako talde onenak bi-deoklip bat filmatuko du.



Norman izan zen arrakasta gehien lortu zuen gure herriko taldea azken edizioan.

The Wet Band taldea izan zen azken irabazlea, epaimahaiaren eta ikus-entzuleen sariak eskuratuta. Mutrikuarrek kaleratu dute euren lan berriena, *Waterproof* deitutakoa. 2007an gure herrian sortutako **Norman** taldea ere heldu zen finalera, Adi Holden (Bergara) Debagoienako ordezkari onenarekin batera. Normanek rock doinuak jotzen ditu, batez ere eta Hitchcock-en *Psicosis* filmeko ondoeza musikaren esparrura eraman nahi izan dute taldearen izen bereko lehen lanean. Flipin Folk eta Ni\_neu izan ziren Eibarko beste ordezkari biak azken edizioan,

2008koan. **Flipin Folk** eibartar eta ermuarez osatutako folk-rock taldea 2001ean sortutakoa da. Azken talde honekin lotura zuzena du **Ni\_neu**; izan ere, Aitor Sologaitoa bertako partaide bat kide bakarra. Rocka lantzen duen azken honek 2003an ekin zion bere bideari. **Hikara** gure herriko laugarren taldea izan zitekeena, kanpoan geratu zen. Norman-ek ez bezala (finaleran izan zirelako), beste guztiak aukera izango dute berriro ere parte hartzeko. Hori bai, izena eman nahi duten beste talde berri guztiekin batera. Zortea eta animo!



**DANBAKA** (with sound waves)

17. MUSIKA LEHIAKETA

DEBAGOIENAKO, DEBABARRENAKO ETA DURANGALDEKO TALDEENTZAT DA

# PARTE HARTU NAHI?

irailak **17** izena emateko azken eguna

Oinarriak eta informazio gehiago:  
[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)

Debagoiena, Debabarrena eta Durangaldeko herriko eta taldeen parte-hartariek gureko lehiaketa, Danbaka Musika Lehiaketa zain dute. Lehiaketa talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko da. Debagoienako talde onenak bi-deoklip bat filmatuko da.



## Coliseo, ikasturtea hasteko prest

**UDAKO ETENALDIAREN ONDOREN, IRAILAREN AMAIERA ALDERA EHINGO DIO IKASTURTEARI COLISEO ANTZOKIAK, HILEROKO PROGRAMAZIOARI JARRAITUTA.** Lehenengo emanaldia irailaren 24an izango da: Mikel Gaztelurrutia & The New Jazz Voices Ensemble taldeak jazz kontzertua eskainiko du 20.30etan. Sarrerak 5 eurotan ipini dituzte salgai, ohiko salmenta sistemari jarraituta. Eta hurrengo egunean, hilaren

25ean, Lambretta Klubak antolatuta antzerki emanaldia hartuko du Coliseoak, 20.00etan eta 22.55etan: "100% Tricicle". Triciclek zuzenduta eta Clownik taldeak antzeztuta, talde katalanaren sketch onak ikusteko aukera izango da. Sarrerak honezkero salgai daude (20 euro) Coliseo antzokiko lehiatilan, Ayerbe liburudenda eta Portalea, Birjiñape, Trinkete, Arno, Terraza Ipuru eta Amañako Caserío tabernetan.



## Begirale titulua lortzeko ikastaroa

**UDALAK, BAILARAKO HAINBAT UDALEKIN BATERA, BEGIRALE TITULUA LORTU NAHI DUTENENTZAT IKASTAROA ANTOLATU DU:** atal teorikoa irailaren 17an hasi eta urtarrilaren 29an amaituko da eta klaseak barixaku arratsaldetan eta zapatuetan (egun osoz) izango dira (ikastaroaren erdia Eibarren emango da eta beste erdia Ermuan), euskeraz. Eibarren erroldatutakoentzat

450 euro balio du ikastaroak eta epe bitan ordaintzeko aukera eskaintzen dute. Matrikula irailaren 10era arte bete daiteke, Pegoran. Ikastaro amaierako praktikak egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak ematen duen begirale titulu ofiziala jasoko dute ikasleek. Bestalde, ikasleek praktikak Eibarko aisialdi egitasmoetan egiten badituzte, Eibarko Udalak matrikularen erdia itzuliko die.

## Kantabriako etxeokak jairako prest


**IRAILAREN 11-N EHINGO DIOTE KANTABRIAKO ETXEKOEK BIEN APARECIDA AMA BIRJIÑAREN OMENEZKO JAIK OSPATZEARI.** Kantabriako babeslea gogoan, urtero egitarau berezia prestatzen dute Eibarren bizi diren kantabriarrek. Ekitaldirik garrantzitsuenak hilaren 18an eta 19an ospatuko dira, baina aurretik, hilaren 11n, toka, igel-toka eta "cuchillo" txapelketak jokatu dira Ipuruako bolatokian, 17.30etan eta 20.00etan sardina-jana egingo dute.



Sardina-jana ez da faltako aurten ere Kantabriako etxeokoen jaietan. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Argazkigintza digitalean trebatzen

**URTEROKO MODUAN, ARGAZKIGINTZA DIGITALEAN LEHEN URRATSAK EMAN NAHI DITUZTENENTZAT IKASTAROA** emango dute Portalean Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek. Oinarrizko kontzeptu eta teknikak landuko dira kurtsoan, baliabide informatikoak erabiliz. Klaseak iraileko, urriko eta azaroko astelehen eta eguaztenean izango dira, Portalean, 19.00etatik 21.30etara. Izen-emateko edo informazioa eskatzeko Pegorara jo behar da, irailaren 6tik 17ra.



## Sormena margoen bitartez lantzen


**URRIAN HASI ETA ABENDURRA BITARTEAN SORMENA BULTZATU ETA INDARTZEKO TAILERRA EGONGO DA MARTXAN PORTALEAN,** astelehen eta martitzenetan 09.30etatik 11.30etara. Maite Arriagak izango du margolaritza bitartez sormenari bultzada

ematea helburu duen tailerraren ardura eta edozeinek eman dezake izena, alde aurretik pinturaren inguruko ezaugarrik izan barik ere. Informazio gehiagorako edo matrikula betetzeko 943821353 edo 622053933 telefono zenbakira deitu behar da.

## Beorlegiren margolanak Portalean

**IRAILAREN 17-AN ZABALDUKO DA PORTALEAN FERNANDO BEORLEGI BEGIRISTAIN MARGOLARIAREN LANEKIN OSATUTAKO "GOGOAREN PINTZELKADA GARRATZAK"** izenburuko erakusketa. Urriaren 12ra arte (martitzetik domekara, 18.30etatik 20.30etara) bisitatzeko moduan izango da erakusketa eta, horren harira, Mikel Beorlegi eta Rafael Castellanos hitzaldia emango dute hilaren 22an, 19.00etan Portalean bertan, DV-ren Aula de Culturak babestuta.

"Beorlegi, el dandi y el esperanto" izenburuari jarraituta, 2008an hil zen margolari ezagunaren bitzita eta obrari erreposoa emango diote artistaren semeak berak eta Castellanosek. Udan, irailaren 12ra arte Zarautzen, Sanz Enea kultur etxean martxan egon den erakusketari erreleboa hartuko dio Portalekoak. Horrela omenaldia egin nahi diote Eibarren bizitzaren zatirik handiena eman zuen artistari. Erakusketa-zikloa Lizarran amaituko da.



Beorlegiren lanak ikusgai izango dira 17tik aurrera.

## Hainbat lehiaketa martxan

**KURTZO BERRIA HASTEAREKIN BATERA HAINBAT LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA ZABALDU DUTE.** Argazkigintza gustoko dutenek **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketara** lanak aurkezteko aukera izango dute urriaren 8ra arte. Udalak Klub Deportiboaren laguntzarekin antolatutako lehiaketa bada berritasunik, ohiko sariei berria gehitu diote-eta: 16 urte-




Laburmetraien izako edizioaren kartela.

tik beherako eibartarren artean argazkirik onena aurkezten duenak 150 euroko balioa duen argazkigintza materiala jasoko du.


Bestalde, **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdirako** lanak urriaren 9ra arte jasoko dituzte. Udalak Plano Corto elkartearen laguntzarekin deitutako lehiaketa sail bi bereizi dituzte: fizikoa eta ani-

mazioa. Lanak DVDan aurkeztu behar dira eta hainbat sari banatuko dituzte laburmetrairik onenen egileen artean.

Eta "**Sanandresak 2010 Eibarren**" kartel lehiaketa parte hartu nahi dutenek urriaren 19ra arte izango dute lanak aurkezteko aukera. Lehiaketa inguruko argibideak eskatzeko edo lanak entregatzeko Pegorara joan behar da.



Urriaren 19an amaituko da kartel lehiaketa.



Ojanguren XXIII. edizioa izango da.

## laburrak

### EUSKALTEGIAK

Matrikulazioa zabalik dago euskaltegi bietan. Udak Euskaltegia izena eman nahi duenak irailaren 24ra arte izango du horretarako aukera eta AEK euskaltegia, berriz, hilaren 28ra arte. Informazio gehiagorako bertara joan daiteke (Bista Eder, 10, 943700912 telefono zenbakia; Sostoatarren, 1, 943201379 telefono zenbakia).

### AFARIKETAN

Astixak kudeatzen duen Afariketan programan izena emateko epea hilaren 20an zabalduko da. Egun horretan eta 21ean Amaña, Urki eta Urkizuko ludoteketan matrikula egiteko aukera izango da, 16.00etatik 18.00etara. Irailaren 22, 23, 24 eta 25ean, berriz, Portalean egingo dira matrikulak, 10.00etatik 13.00etara. Informazio gehiagorako Astixara joan (Zezenbide, 7) edo deitu 943206231 zenbakira.

### ZAPATUKO IPUINA BUELTAN

Juan San Martin Liburutegiak irailaren 25ean, 18.00etan ipuin kontalari saioa hartuko du Zapatuko Ipuina egitasmoari jarraituta. Txotxongilo taldeak "Erreka Mari" izenburuko lana eskainiko du umeen liburutegian.

## Euskararen erabileraren inguruan

**EIBARKO UDALAK, EBN PLANAREN BARRUAN, AZKEN LAU URTEETAN EGITEN DIHARDUENARI JARRAITUZ**, euskararen erabilera areagotzeko estrategien inguruko hitzaldia eskaini die Eibarko irakasleei. Ainara Labado ...eta kitto! Euskara Elkarteko Normalizazio teknikariaren eskutik euskararekiko jarrera eta motibazioen inguruan

hausnarketa egiteko aukera izan zuten irakasleek. Beste herri askotan gertatzen den moduan, Eibarko ikasleen artean ere ezagutza eta erabilera ez datoz bat. Neurketek diote euskara gutxi erabiltzen dela, eta beraz, egoera horren aurrean zein neurri hartu eztabaidatzea ezinbestekoa dela azpimarratu dute saio horien antolatzaileek.




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, EGOITZ Eitzagaetxeberria, abuztuan hiru urte egin dozuz-eta. Askok maitte zaittuen zure famelixaren partez.




Zorionak, ANE Alberdi, julixuan zazpi urte egin zenuz-eta. Muxu haundi bat, etxekuen partez.



Zorionak, URKO, abuztuan bost urte egin dozuz-eta. Zenbakixa bezain mutil borobilla zeu! Patxo haundi bat.



Zorionak, UNAI Soraluze Oartzun, julixoko 21ian zazpi urte egin zenuz-eta. Muxu potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, ARIANE, sei urte egin dozuz-eta. Muxu bat aitxitxa eta amamaren partez.




Zorionak, ENDIKA, julixoko 29an zortzi urte bete zenuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, UXUE, astelehenian urtebete egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, sei urte egin dozuz-eta. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak gure etxeko printzesari, 7 urte egitterakuan. Muxu haundi bat, NAROA!



Zorionak, MARKEL, hillaren 11n urte bi egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, famelixaren partez.



Zorionak, ELENE eta DANEL Larrarte, lau urte eta urtebete egin dozuez udan-eta! Amatxo eta aitaxoren partez, milla muxu.



Zorionak, ARMANDO eta ITSASO, aurreko astian urtiak bete zenuz-eta. Muxu haundi bana.

## HILDAKOAK

- Basilio Gorosabel Ormaetxea. 97 urte. 2010-VII-3.
- Timoteo Sánchez Vaquero. 74 urte. 2010-VII-7.
- Teresa Etxeberria Yraolagoitia. 94 urte. 2010-VII-15.
- Arrate Lekunberri Garrido. 76 urte. 2010-VII-18.
- Emiliana Sánchez Corral. 78 urte. 2010-VII-20.
- Javier Arnaiz Solórzano. 60 urte. 2010-VII-20.
- Benito Izagirre Bengoetxea. 91 urte. 2010-VII-23.
- Guadalupe Guillén Camacho. 76 urte. 2010-VII-23.
- Virginia Fernández Pumar. 94 urte. 2010-VII-23.
- Vicente Lonbide Goikoetxea. 56 urte. 2010-VII-23.
- Jose Manuel ProI Docabo. 52 urte. 2010-VII-25.
- Luis M<sup>o</sup> Barriuso Villanueva. 59 urte. 2010-VII-28.
- Jesus Albistegi Gallastegi. 60 urte. 2010-VII-30.
- Pilar Elkoroiribe Unzetabarrenetxea. 84 urte. 2010-VII-31.
- Jose Amillategi Bilbao. 69 urte. 2010-VIII-3.
- Luisa Sánchez González. 72 urte. 2010-VIII-5.
- Asunción Cano Martínez. 87 urte. 2010-VIII-5.
- Jose Cruz Lahidalga Ruiz de Luzuriaga. 90 urte. 2010-VIII-7.
- Isabel Alcázar Rabal. 81 urte. 2010-VIII-9.
- Maria Zabaleta Agirreazaldegi. 90 urte. 2010-VIII-11.
- Iñaki Moreno Etxeberria. 75 urte. 2010-VIII-11.
- Maria Borrajo González. 87 urte. 2010-VIII-15.
- Victoriana Burgos Guerra. 96 urte. 2010-VIII-15.
- Ramon De Luis Ferreras. 60 urte. 2010-VIII-18.
- Angel Fernández Pinto. 82 urte. 2010-VIII-15.
- Patxi Juaristi Torrealdeai. 55 urte. 2010-VIII-16.
- Francisca Anaya Palacios. 86 urte. 2010-VIII-16.
- Jose M<sup>o</sup> Etxeberria Yraolagoitia. 86 urte. 2010-VIII-16.
- Maria Gamazo Segovia. 97 urte. 2010-VIII-17.
- Agapito Alzaga Hortiguela. 83 urte. 2010-VIII-17.
- Roberto Arévalo Buendía. 70 urte. 2010-VIII-17.
- Jon Aizpurua Alardi. 44 urte. 2010-VIII-22.
- Jose Guridi Urresti. 70 urte. 2010-VIII-22.
- Isabel Méndez Fagúndez. 82 urte. 2010-VIII-23.
- Luis Arrieta Etxeberria. 77 urte. 2010-VIII-23.
- Javier Laskurain Kortaberria. 68 urte. 2010-VIII-23.
- Consuelo Arregi Illarramendi. 89 urte. 2010-VIII-27.
- Roberto Rodríguez Perea. 31 urte. 2010-VIII-7.
- Genma Hualde Ituarte. 52 urte. 2010-VIII-28.
- Beatriz Alvarez Vázquez. 98 urte. 2010-VIII-30.

## JAIOTAKOAK

- Gorka Del Moral Cid. 2010-VI-30.
- Aner De la Vega Domínguez. 2010-VII-12.
- Uxue Askasibar Fernández. 2010-VII-12.
- Paule Iriondo Leturia. 2010-VII-13.
- Uxue Riaño Garzón. 2010-VII-15.
- Agustín Gómez Rodríguez. 2010-VII-17.
- Martina Egaña Cano. 2010-VII-20.
- Elaia Zumeta Serrano. 2010-VII-22.
- Ander González Cabello. 2010-VII-22.
- Idoia Retana Vierna. 2010-VII-26.
- Jose Antonio Piñeiro Hida. 2010-VII-26.
- Izar Sierra Arzuaga. 2010-VII-27.
- Hector Gabriel Ruiz Arratibel. 2010-VII-28.
- Malen Andonegi Blanco. 2010-VII-30.
- June Garitaonandia Crespo. 2010-VII-30.
- Alazne Etxaide Rodríguez. 2010-VII-30.
- Alaitz Martínez Ugarteburu. 2010-VIII-1.
- Enara Gutiérrez González. 2010-VIII-4.
- Pello Aranzeta Martinikorena. 2010-VIII-4.
- Naia Fernández Belda. 2010-VIII-5.
- Xabier Atxa Luis. 2010-VIII-6.
- Xabier Cid Gisasola. 2010-VIII-11.
- Naia Luengo Basaras. 2010-VIII-12.
- Itsaso Castrillo Gil. 2010-VIII-14.
- Eider Oiarzabal Zuloaga. 2010-VIII-15.
- Rayan Atmani. 2010-VIII-16.
- Naia Kapelastegi Camiño. 2010-VIII-18.
- Hajar Ourahov. 2010-VIII-18.
- Josu Urkiri Villar. 2010-VIII-20.
- Haizea Muruamendiaraz. 2010-VIII-23.
- Nora Igartua De los Toyos. 2010-VIII-26.
- Amets Sáez Arias. 2010-VIII-27.



**telefono jakingarriak**

SOS delak .....112  
 Pegora .....010  
 Udaletxea .....943 70 84 00  
 Portalea .....943 70 84 39  
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
 Mankomunitatea943 70 07 99  
 Debegesa.....943 82 01 10  
 KIUB .....943 20 38 43  
 Epaitegia .....943 03 34 00  
 Iberdrola .....901 20 20 20  
 Naturgas .....902 12 34 56  
 DYA Larrialdiak.943 46 46 22  
 Gurutze Gorria..943 22 22 22  
 Mendaro osp.....943 03 28 00  
 Anbulategia.....943 03 25 00  
 Torrekua .....943 03 26 50  
 Errepideak.....902 11 20 88  
 Ertzaintza .....943 53 17 00  
 Eusko Tren .....902 54 32 10  
 Pesa .....902 10 12 10  
 Taxiak.....943 20 30 71  
 .....943 20 13 25  
 Alkohol.Anon. ..629 14 18 74  
 Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**horoskopoa**

**ARIES**  
 Beti geratzen zaizu sentsazio berdina: ez duzula uda behar bezain beste aprobetxatu. Baina pentsa egin dituzunak!

**TAURUS**  
 Indarberrituta ekingo diozu denboraldi berriari. Ea asmo guztiak betetzen dituzun eta dena ongi irteten zaizun.

**GEMINI**  
 Ez duzu uste nahikoa dela? Lagunak kokoteraino daude zure udako pasadizoak entzuten! Argazkiak ez erakutsi.

**CANCER**  
 Kostako zaizu berriz ere hemengo bizimodura egokitzea, baina egun edo aste batzuetako kontua izango da.

**LEO**  
 Zeinen azkar pasatzen den abuztua, ezta? Ondo aprobetxatu duzula da hori. Orain ekin sasoi berriari.

**VIRGO**  
 Aldatuta etorri zara udako oportunitatik. Zer gertatu zaizu bada? Nor ezagutu duzu? Beste poztasun batekin zabilzta.

**LIBRA**  
 Tira, anima zaitez! Berriro ere egunerokotasunean murgiltzeagatik ez da mundua amaitzen. Baditu alde onak.

**SCORPIUS**  
 Nolako hilabetea pasa duzun! Emozioz betea, abenturaz josia eta alaitasunez blai. Orain dena kontatu beharko!

**SAGITTARIUS**  
 Behar zenuen horrelako uda pasatzea. Berriz ere alai sentitu zara, bizi-bizi, eta horrek asko lagunduko zaitu.

**CAPRICORNIUS**  
 Arazo guztiak atzean utzi dituzu eta momentu zoragarria biziko duzu hemendik aurrera. Terapia izango da zuretzat.

**AQUARIUS**  
 Uda zoragarria izan da... eta itzulera? Patrikan eskua sartu eta hutsik. Diru gehiegi xahutu al duzu? Hori dirudi.

**PISCIS**  
 Denak oportretan joan aurretik bezala jarraitzen du. Berdin-berdin. Aldatu den bakarra zure burua izan da.

**farmaziak**

**3, barixakua**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

**4, zapatua**  
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

**5, domeka**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

**6, astelehena**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**7, martitzena**  
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

**8, eguaztena**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

**9, eguena**  
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

**10, barixakua**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

**11, zapatua**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

**12, domeka**  
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

**13, astelehena**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

**14, martitzena**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

**15, eguaztena**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

**16, eguena**  
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**17, barixakua**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**SUDOKUA**

3		5			8	
7	5		9		2	
8				6		7
		6				1
	6		2	5		
4				1		
6			8			3
	3		6		2	5
	2			3		9

**DENBORAPASAK**

8	1	3	7	4	5	6	9	2
2	6	7	0	3	8	5	1	4
9	4	5	1	6	2	8	3	7
5	3	2	4	9	7	1	8	6
7	8	6	0	1	3	2	4	9
1	9	4	6	2	8	7	5	3
3	7	0	2	5	4	9	6	1
4	5	1	9	7	6	3	2	8
6	2	9	3	8	1	4	7	5

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Buhardila dotorea alokagai (eros- teko aukera). Prezio interesgarria. 5. pisua, igogailurik gabe. Tel. 626-144098.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukald- eia, komun bi eta trasteroa. Igogai- luarekin. Guztiz berriztua eta argi- tsua. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Mendaron. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia eta komu- na. Dena kanpora begira. 150.000 euro, negoziagarriak. Tel. 943-700690.
- Armagin kalean (Txaltxa Zelai on- doan) pisua salgai. 3 logela, egon- gela, sukaldia, komuna eta ganba- ra. Kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 675-700864.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Iparragirre kalean. Gela bi, egongela, sukaldia, komu- na eta terraza handia. Altzariekin. Tel. 687-090955.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 688-811385.
- Gela alokagai Legarren (Eibarko erdi aldetik gertu). Kalefakzioa eta wi-fi. 275 euro, gastuak barne. Tel. 620-633434.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldia eta komunarekin. Tel. 669-293427.
- Jubilazioa dela-eta, jabetxea tras- pasatzen da Eibarko erdigunean. Aukerako prezioan. Tel. 943-207019.
- Txabola salgai, terrenoarekin. Azitaingo poligono industrialean. Berrizteko. Tel. 618-875007.

### 3.2. Errentan

- Kontsulta alokatzen dut astero hiru egunetan. Tel. 639-748114. M<sup>a</sup> Jesus.
- Garajea alokagai San Andres pa- sealekuan. Tel. 943-120308. Pili.
- Lokala alokagai Elgoibarren, eros- teko aukerarekin. 125 m<sup>2</sup>. Lehen ta- berna izandakoa, soziedade bat egi- teko edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. Deitu 19.00etatik 22.00eta- ra. Tel. 649-446716.
- Garajea alokairuan Urkizun. Ma- rradun partzela. Tel. 609-453946.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak edo umeak zaintzeko eta sukald- dari moduan. Tel. 626-946905.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak edo umeak zaintzeko eta sukald- dari moduan. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 617-727744.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak zaintzeko. Tel. 675-007271.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak edo umeak zaintzeko eta garbi- ketak egiteko. Orduka. Tel. 680-223378.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Orduka eta interna. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiket- ak egiteko eta kamarera moduan. Tel. 657-142376.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Tel. 628-014327.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak edo umeak zaintzeko, pegorak garbitzeko etabar. Tel. 689-617818.
- Mutila eskaintzen da sukaldari edo biltegi laguntzaile moduan, tornon- an zein fresadoran jarduteko etabar. Tel. 646-260220.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko gaez eta aste- buruetan eta garbiket- ak egiteko. Tel. 646-821678.
- Mutila eskaintzen da baserrian la- guntzeko, tabernan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-077316.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendan jarduteko. Tel. 630-410724.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-966611.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 629-994385.
- Emakume erizaina eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-936839.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Tel. 678-972690.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiket- a lanetarako. Tel. 678-972690.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak zaintzeko. Orduka zein interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 636-172765.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak zaintzeko. Orduka zein interna. Esperientzia. Tel. 680-674323.
- Emakumea eskaintzen da, ingele- sa eta italiara ezagutzeekin, harreran zein farmazia laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 943-031441 edo 618-350922.
- Mutila eskaintzen da elektrizista, igeltsero edo sukaldari-laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 646-260220 edo 943-031441.
- Mutila eskaintzen da baserri lane- tan jarduteko eta sukaldari-lagun- tzaile moduan. Tel. 686-077316.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak zaintzeko. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiket- a lanetarako. 15.30etatik 18.30etara. Tel. 647-044031. Marian.
- Neska eskaintzen da umeak zain- tzeko eta garbiket- a lanetarako. Tel. 663-786976
- Titulodun emakumea eskaintzen da nagusiak edo menpekotasunak dituztenak zaintzeko. Tel. 619-859032.
- Emakume arduratsua eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, garbiket- ak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 691-060164.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 646-180072.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 686-614201.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiket- ak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 669-230164.
- Neska eskaintzen da garbiket- ak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-854136.
- Emakumea eskaintzen da nagusi- ak edo umeak zaintzeko eta garbi- ketak egiteko. Tel. 606-641609.
- Emakumea eskaintzen da garbi- ketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 629-994385.
- Emakumea eskaintzen da garbi- ketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 669-966611.

### 4.2. Langile bila

- Norbait behar da egunero 07.00etatik 09.00etara umea zaindu eta haurtzaindegian lagatzeko. Tel. 660-522271.
- Platerak garbitzeko norbait behar da asteburuetarako. Autoa behar- rezkoa. Tel. 679-950907.
- Kamarera/o behar da Txoko taber- nan. Tel. 943-207010.
- Ilepaindegirako 1. mailako ofizia- la behar da. Esperientziarekin. Tel. 943-530000.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Ia berria. Tel. 666-062285. Rosa.
- Edozein sehaskarako egokitutako umea aldatzeko salgai. 40 euro. Tel. 626-144098.
- Bebe-konfort kotxe-kapazoa, aul- kitxo eta maxi-cosia salgai. Oso merke. Fundak (zakuak) eta burbuil- ak opari. Tel. 617-256466.



OSTEO  
PATIA



KIRO  
MASAJEA

REFLEXO  
LOGIA



GEL AZAZKALAK  
MANIKURA ETA PEDIKURA  
LUZARORAKO



AURPEGI  
FOTOGAZ  
TETZEA

BETILE  
LUZA  
PENA

# CAPI

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

## Laser fotodepilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

3x2

- OSTEOPATIA (buzurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

## Masajeak

## Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin

30 minutuko  
masajea edo  
erreflexologia  
OPARI


BEGIBISTAKO  
EMAITZEKIN  
LEHENENGO  
SAIOTIK

BERRIA

5 saio 150 euro

30 euro saio bat

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00



# EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

2010-2011 IKASTURTEA

## MATRIKULA ZABAUK

www.adolearkitologia.net

Eibarko Udalak  
HABEK  
lagundutako  
Bekak

Eibarko Udala Euskaltegia  
**25.**  
urteurrena

### ESKAINNTZA

- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak
- 3. maila (EGA) egunero eta astean bitan
- Azterketa prestakuntza: **HABEren 1. eta 2. mailak** (Perfilekin homologatuta)
- Titulu ofizialak

### IKASTARO BEREZIAK

- Autoikaskuntza: **BOGA** programa (tutoretzak eta mintzasaiolak)
- Gurasoentzako ikastaroak
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak
- EGAtik gorakoak: sakontze, itzulpengintza, Euskaltzaindiaren arauak, 4. maila...
- Elbarrera
- Mintza-praktika ikastaroak
- Talde bereziak: merkatariak, jubilatuek, ostalariak...
- Ikastaroak enpresetan

Bista Eder 10 -PORTALEA-

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Telefona: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**Estaziño kalea, 8**  
**Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7**  
**Tel. 943 70 23 84**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75